

Zuretzat, esker onez

Alazne Iturriotz

Euskaldunon Egunkaria, 1996-11-14.

San Martin egunez bete zituen 75 urte euskaltzale eta idazle nekaezinak, eta sakelako erlojua oparitu zioten "bizitza guztiko lanaren eskergarri".

Oraintxe urtebete, Karolina bere etxeko epelean jaso zituen Martin Ugaldek Koruko Aizarna eta Xabier Huizi, Diputaziora iritsi berriek beste hainbat pertsonaliteri ere egindako bisitaldi instituzionalean. Aurten ere jaso ditu, herenegun arratsean, San Martin egunez 75. urtemuga bete zuelako euskaltzale eta idazle nekaezinak.

75ekoa kopuru desentekoa eta biribila da eta, zorionak ematera ezezik, opari-emaile ere joan zitzaizkion. "Opari txiki batekin gatoz. Kultura eta Euskara departamentuaren izenean. Nahi genuen zuk oroigarri bat edukitzea", azaldu zion Aizarnak. Oparia kristala bezain hauskorra izan zitekeela uste izan zuen lehen une batez etxeko nagusiak, baina, ez zilarrezko sakeleko erloju sendo bat zen. "Nire aitona ere bazeukan halako zahar bat, eta oso ondo ibiltzen zen. Ez nuen sekula espero halakorik. Eskerrik asko".

Euskara eta kultur munduari hainbeste urtetan hainbesteko ekarria egin dion gizonarekin zordun sentitzen dira Diputazioko agintariak. "Eskerrak zuri, Martin. Bizitza guztiko lana da zurea, eta oraindik ere lanean jarraitzea espero dugu beste urte mordo bat". Lanean, idazten jarraitzen du Ugaldek, eta zertan ari den jakin nahi izan zuten kale mahaiaren inguruan bildutakoek. "Ipuinak ari naiz egiten. Eta ari naiz pentsatzen nik egin nituen elkarrizketa batzuk, Lezo Urreizietarekin, argitaratzea". Aurretik, ordea, duen materiala ondo begiratu nahi du, zer argitara eman eta zer ez erabaki, "hain da gizon ausarta eta hain egin ditu gauza zailak; hainbeste jende tratatu du eta batzuk hain gaizki!...". Horretarako Beloke abadia baketsura joan eta hamabost bat egun pasatu nahi lituzke. "Jan eta lo, eta lan egin. Hemen, telefonoarekin-eta, ezin da lan egin".

Zentzu kritikoarekin borrokan

Lanari beldurrik ez dio eta, osasuntsu egonda, zahartzaroak ez du izutzen. "Nik gauza bat gorde nahi dut: zentzu kritiko pixka bat". Horren argigarri, Jose Artetxek *Zeruko Argia*-rako idazten zuten garaian esan ohi ziona aipatu zuen: "Esaten zidan: 'Martin, euskara geroz eta errazago egiten diat'. Orduan, Xalba Garmendiari komentatu eta hark: 'Bai! Errazago egiten dik, baina gaizki'. Zer den edadea! Uste du batek erraz idaztea dela inportantea eta ez du denborarik hartzen bere gauzak ondo begiratzeko". Ugaldek ez luke horretara iritsi nahi; Egunkaria-ko zutabetxoak irakurtzen duenak "Martin, non

habil!" pentsatzerik. Ohartaraziko lioketen benetako adiskideen laguntza espero du, hortaz.

Mintzagai izan zituen orain 20 urte h-arekin izan zituzten borrokak. Elvira Zipitriaren kontuak, Nemesio Etxaniz, Manuel lekuona, Anizeto Zugasti eta Rikardo Arregi. Liburu bizia da, eta gustura zituen solaskideak, entzuten eta ikasten. "Asko ikasten da Martinekin". Apala eta egiazalea ere bada: "Asko ikasten dut nik ere. Badakizu, apartatuta nago mundu ofizialetik eta horiek ekartzen dizkirate haize freskoak eta berriak". Jakitun da, dena den, leiho ofiziala itxi-irekian baino ez diotela uzten. "Hauek sekretu denak jakiten dituzte, eta sekreturik ez didate esaten!". Orduantxe eman zizkion Aizarnak Roman Suduperen partetik eskuminak, eta diputatu nagusia nondik dabilen ondo jakinda ere –"nire jendea ez dun"–, itzuli egin zizkion. Hortik aurrerako kontuak, *off the record* izan ziren.